# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4374

*1601/2015 EBAZPENA, irailaren 9koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen da Francisco Javier Fuertes Machín jaunaren kasuarekin lotutako 2015eko maiatzaren 18ko 313/2015 Epaiaren betearazpena; abokatuak hautatzeko prozesua (EPE 2006).*

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2015eko maiatzaren 18ko 313/2015 epaia ikusi da eta agindu judizialari dagokion administrazio-espedientea aztertu da, honako hauetan oinarrituta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2006. urterako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren testuinguruan - horren oinarri orokorrak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 4ko 1082/2006 Ebazpenaren bidez (2006ko urriaren 24ko EHAA, 203. zk.) onartzen dira-, Abokatuaren kategoriarako hautatze-probarako deialdia egiten da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren urriaren 6ko 1125/2006 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde sanitarioko erakundeetan destinoa duten Goi mailako Teknikarien Lanbide Taldeko Abokatua kategorian lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzen dituenaren bidez, alegia.

Osakidetza-EOZaren zuzendari nagusiaren uztailaren 11ko 2176/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-EOZeko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten Goi Mailako Teknikarien Lanbide Taldeko Abokatua kategorian libre zeuden txanda irekiko destinoak esleitu ziren (2008ko uztailaren 14ko EHAA, 133. zk.).

Aurretik aipatutako ebazpenarekin bat etorriz, Susana López Altuna andreari Abokatuaren kategoriako destino bat esleitu zitzaion (lanpostu funtzionala Abokatu Korporatiboa) Erakunde Zentralean, eta 2008ko uztailaren 15ean lanpostuaz jabetu zen (plaza-kodea 00661).

Ondoren, Osakidetza-EOZeko zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 3729/2008 Ebazpena onartu zen eta horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan destinoa duten Goi mailako Lanbide Taldeko Goi mailako Tituluduna (Administrazio eta Kudeaketako Goi mailako Teknikariaren lanpostu funtzionala), Goi mailako Tituluduna (Goi mailako Teknikari Juridikoaren lanpostu funtzionala) eta Goi mailako Tituluduna (Ekonomista) kategorietan libre zeuden txanda irekiko destinoak esleitu ziren (2008ko urriaren 11ko EHAA, 209. zk.).

Osakidetza-EOZen zuzendari nagusiaren urriaren 13ko 3729/2008 Ebazpenarekin bat etorriz, Gerardo Zubeldia Albizu jaunari Abokatuaren kategoriako destino bat esleitu zitzaion (Goi mailako Teknikari Juridikoaren lanpostu funtzionala) Gipuzkoa-Mendebaldea Eskualdean, eta 2008ko azaroaren 7an lanpostuaz jabetu zen (plaza-kodea 9336).

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 2013ko maiatzaren 7ko 291/2013 Epaiaren bidez, Francisco Javier Fuertes Machín jaunak, Abokatuaren kategoriako

hautatze-prozesuarekin (2006ko EPE) lotuta, 404/2009 Prozedura Laburtuan Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiak emandako 2010eko maiatzaren 19ko 318/2010 Epaiaren kontra jarri zuen apelazio-errekurtsoa zati batean baietsi da.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren ekainaren 3ko 216/2013 Ebazpenaren bidez, 2013ko maiatzaren 7ko 291/2013 Epaia betearazteko izapideei hasiera eman zitzaien, eta 10 eguneko epea eman zitzaien interesdunei.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 23ko 1328/2013 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 2013ko maiatzaren 7ko 291/2013 Epaia betearazten da. Epai horrek zati batean baiesten du Francisco Javier Fuertes Machín jaunak, Abokatuaren kategoriako hautatze-prozesuarekin (2006ko EPE) lotuta, 404/2009 Prozedura Laburtuan Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiak emandako 2010eko maiatzaren 19ko 318/2010 Epaiaren kontra jarri zuen apelazio-errekurtsoa.

Bosgarrena.– Francisco Javier Fuertes Machín jaunak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 23ko 1328/2013 Ebazpenaren erabateko deuseztasuna eskatzen du eta, ondoren, bere deuseztasun-eskabidea ezetsi zuen Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko epaitegiaren 101/2014 Autoa aurkaratu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, bere 313/2015 epaiaren bidez, Francisco Javier Fuertes jaunak 101/2014 Autoaren kontra jarritako apelazio-errekurtsoa baiesten du eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1328/2013 Ebazpenaren erabateko deuseztasuna deklaratzen du, eta aipatutako epaia irmoa dela adierazten du.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren uztailaren 20ko 218/2015 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaia betearazten da, eta alegazioak eta dokumentazioa aurkezteko epe bat irekitzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari dagokio epaia betearaztea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ematen dizkioten eskumenen arabera.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegi eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, horixe xedatzen baita administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

313/2015 epaiarekin bat etorriz, Francisco Javier Fuertes Machín jaunak 101/2014 Autoaren kontra jarritako apelazio-errekurtsoa baiesten da. Horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1328/2013 Ebazpenaren erabateko deuseztasuna deklaratzen da eta epai hori irmoa dela adierazten da.

Hirugarrena.– Erabaki judizialak apelazio-errekurtsoa baiesten du eta apelatutako autoa baliogabetzen du. Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 7ko Epaiaren betearazpen-intzidentea ezagutuz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren irailaren 23ko 1328/2013 Ebazpenaren erabateko deuseztasuna deklaratzen da.

Erabaki judizialean ezarritakoaren ondorioz, Francisco Javier Fuertes Machín jaunari eskaini zaio Abokatuaren kategoriako hautatze-prozesuan (2006ko EPE) Susana López Altuna andreari esleitutako destinoa, (plaza-kodea 000661), 10.9.6 oinarriaren irizpideen arabera eta interesdunak derrigorrez bete beharreko izapideak egiaztatu dira.

Laugarrena.– Administrazio-auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, eta erabaki judiziala betetzeko helburuarekin, administrazio-egintzen kontserbazio-instituzioan sartzen dira (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 66. artikulua) aplikagarri izan daitezkeen aurreko administrazio-jardute guztiak.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 861/2014 apelazio-errekurtsoan Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak eman duen 313/2015 Epaiaren epaitza betearaztea, jarraian aipatzen diren egoeretan.

Bigarrena.– Epai judiziala izapide hauen bitartez betearaziko da:

1.– Abokatuaren kategorian (abokatu korporatiboaren postu funtzionala) txanda irekiko destino bat ematea Francisco Javier Fuertes Machín jaunari, Erakunde Zentralean (Araban) (plaza-kodea 000661), ezarritako prozedura oinarri hartuz.

2.– Abokatuaren kategorian (abokatu korporatiboaren postu funtzionala) langile estatutario finkoko izendapena ematea Francisco Javier Fuertes Machín jaunari, Erakunde Zentralean (Araba).

3.– Francisco Javier Fuertes Machín jaunak destinoaz jabetzeko hilabeteko epea izango du, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza zentralean, eta esleipendunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du ekitaldi horretan:

– Diziplina-espediente bidez, izangaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik ez dagoela baztertuta eta eginkizun publikoetarako ez dagoela ezgaitua adierazten duen zinpeko aitorpena edo agindua.

– Azterketa medikoa, bere destinoko lana behar bezala egiteko gaitasun psikofisikoa duela egiaztatzen duena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emanda.

Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez bada edo agiri horiek aztertuta 6.2 oinarrian adierazitako eskakizunen bat betetzen ez duela atzematen bada, ezingo da jabetu esleitu zaion langile estatutarioaren destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsutzeren bat egiteagatik izan dezakeen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, jakinarazten da lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hautaketa-probei buruzko Ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Jabetzeko eginbidea bete eta hurrengo egunean hasi beharko du lanean Erakunde Zentraleko destinoan.

Hirugarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik at geratzen diren gainerako egintza eta izapideek bere hartan jarrai dezatela aginduko da.

Laugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitara dadila agintzea, Francisco Javier Fuertes Machín jaunari eta Susana López Altuna andreari jakinaraztea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiari horren berri ematea.

Bosgarrena.– Epaia betearazteko izapideetan sor daitezkeen gorabeherak aztertzea eta ebaztea aipatutako epaitegiari dagokio, halaxe ezartzen baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 109. artikuluetan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 9a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.